



Jon Garmendia
urnietarraren
iritzi artikulua

2017ko abenduaren 1a, 546 zenbakia XIII. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

PRESOEN ESKUBIDEEN ALDEKO EKIMENA

Igandera bitarte euskarari loturiko hitzordu ugari iragarrita daude

Abenduaren 3an euskararen nazioarteko eguna ospatzen da. Urnietan 'Handia' eskainiko dute; Andoainen egitarau oparoa antolatu dute.

Egun hauetarako Andoainen eta Urnietan ekitaldi ezberdinak iragarrita daude. Eskualdetik haratago, joan zen astean euskara eragile ezberdinek eta Euskal Herri osoko erakundeek 2018ko udazkenean abian jarriko den egitasmo berria aurkeztu zuten: **Euskaraldia**. Urtebete barru, euskararen lurralde osoan batera aktibazio ekimen handia antolatuko dute. Hala, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, hizkuntza ohituretan eragiteko helburuarekin, lehenengo Euskaraldia egingo da, **11 egun euskaraz** lelopean.

Euskaraz hitz egin edo ulertzeko gai diren herritarrak



Ez dok hiru antzezlanak igande honetan Basteron, iluntzeko 20:00tan hasita. Euskara, musika eta umore koktela euskararen nazioarteko egunean, Patxo Telleria eta Mikel Martinezen eskutik.

izango dira ekimeneko protagonista, eta, hamaika egunetan zehar, beraien ohiko harreman sareetan euskaraz airtzeko gonbita egingo zaie, inertiak apurtu eta euskaraz-

ko hizkuntza praktikak bultzatzeko asmoz. Helburua oso zehatza da: herritar euskaltzaleak aktibatu eta hizkuntza ohiturak aldatzea. Hurrengo hilabeteetan egitasmoa herriz

herri txertatzen joateko urratsak emango dira. Urtebete barru ohiko egingo dira **belarriprest** edota **ahobizi** bezalako kontzeptuak.

[GEHIGARRI BEREZIA]

'Trentxikitik barrena', musika doinu berria Andoaingo erreperitorioan

Santa Zezilia egunez, Udal musika eskolako bandak Suite klasikoa eskaini zuen Basteroko auditorioan.

Eta kontzertuari urrezko amaiera emateko, **Joxe Mari Oartzabalek** bandarako propio sorturiko *'Trentxikitik barrena'* pieza eskaini zuten. Musika pieza estrainekez entzun aurretik, **Mikel Emezabal** bandako zuzendariak azalpen txikia eman zuen. Bandaren izenean eskerak emateaz gain, Donostiako musika eskolako ikasle garaiak gogoan izan zituen. Oartzabal irakasle eta zuzendari izan baitzuen: "Hamabost urte nituene-



Oartzabal Plazaolako estazio-buruek eraman ohi zuten kapela eta txilibituarekin.

an, kontserbatorioko ikasle nintzela, ikasleen bandako kide izateko eskaintza jaso nuen. Niretzat oso esperientzia baikorra

izan zen. Pasio handiarekin bizi izan nuen garai hura, eta orain aurkeztuko dizuedan pertsona maisu izan zen niretzat orduan.

[4-5. ORRIALDEAK]

Azaroak 25 Andoainen eta Urnietan



Urnietako ikasleak.

Joan zen azaroaren 25ean Urnietan egin zuten bilkuran eta Andoainen antolatutako kalejiran eta ondorengo ekitaldian, emakumeenganako indarkeriaren aurka egiteko erantzukizuna denona dela adierazi zuten. Erakundeetako ordezkariekin batera, herritarrak kalera irten ziren.

[2-3. ORRIALDEAK]

Pupu eta Loreren berriena Basteron



Pupu eta Lore baserriko ganbarara igo dira jolastera. Kantu, irri, jolas eta solas ariko dira pailazo txikiak ia ordubeteko saioan, Xabier Zabalak musikaturako Joxan Ormazabalaren olerkiak oinarri hartuta. Jaiotzearen denburrari eta haur jaioberriari abestuko diote. Titia ere kantuz emango diote, puzkerrari doinu jarriko diote, abestuko diote astoari, urtaroei, euri tantari... *Maite zaitut* ere kantuz esango diote elkarri.

[AGENDA, 8. ORRIALDEAK]

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA ANDOAINEN ETA URNIETAN

Irtenbidea aurkitzea gizarte osoari dagokion ardura da

Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei aitortza ekitaldia egin zieten Andoainen, joan zen larunbatean. Juanita Alkain plazan jarri zuten hitzordua, eta hainbat herritar hurbildu zen Uda-

lak eta herriko gizarte eragile ezberdinek antolaturiko ekimenera. Handik Goikoplazara abiatu ziren, bidean emakumeenganako indarkeriaren aurkako mezuak zabalduz.



Ekitaldiaren amaieran kalejiran parte hartu zuten herrikideek argazkia atera zuten, talde eragileak zapaten inguruan egindako aldarrikapenezko artelanaren ondoan.

Emakumeek ume direnetik maiz entzun behar izaten dituzten esaldiei matxismoa darie: “Neskatxa, gona batekin askoz politagoa egongo zinateke”, “A ze umorea, hilekoarekin zaude, ala?”, “Zer egiten duzu hemen, bakarrik, hain polita izanda?”, “Ez bazenuen nahi tipo horrek ezer esatea, ez jarri eskote hori”, “Mutilekin gehiegi jolasten baduzu, marimutil deituko dizute”... Horiek eta gehiago larunbat eguerdiko afitxatan ikus zitezkeen, Juanita Alkain plazatik Goikoplazarako aldarrikapen martxan bidelagun bilakatu zirenak.

Goikoplazan, indarkeriari aurre egin dioten emakumei omenaldi ekitaldia egin zieten. Martxa hara iristerako, prest zegoen emakume talde batek azken astetan oinetakoekin prestatu duen artelana. Haren inguruan **Malen Otxoa** (kitarra) eta **Itsaso Santxez** (ahotsa) kantari hasi ziren: *Morez* (Uluka) eta *Txoria Txori* (Mikel Laboa) eskaini zituzten.

Ondoren, **Ane Etxeberria** eta **Maidar Arabaolaza** dantzariak saioa eskaintzen zuten bitartean, hainbat emakume banan-bana mikrofonoaren aurretik pasa ziren, martxan zehar erakusitako 24 karteletako esaldiak ozen irakurritz.

Esti Mujika gizon eta emakumeen Berrintasun saileko zinegotziak hartu zuen hitza, azkenik. Andoaingo Udaleko alderdi guztiek onartutako adierazpen instituzionala hizpide hartu zuen: “Indarkeria matxista berandu baino lehen ezabatu beharreko indarkeria mota dugu. Indarkeria honen egiturazko izaera salatu nahi dugu; salatu eta azalerazi honen atzean izen-abizenak dituzten emakumeak daudela”.

Segidan, Andoainen indarkeria matxista ardatz duen txostena aipagai izan zuen: “Jakin berri dugu indarkeria mota honek Andoainen utzi duen oinazea azken hiru urtetan; 2014 eta 2015ean 22na salaketa izan genituen. 2016an,

berri, 24 izan ziren. Kezkagarriak dira datuak, izan ere, Andoainen indarkeria matxistaren tasa 100 emakumeetatik 1,3koa da, EAEn 0,4koa den bitartean; alegia, hirukoiztu egiten da kopurua. Datu horiek iraultzeko garaia da. Are gehiago, dagoeneko berandu gabiltza. Emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den jendarte bat eraikitzeko, konpromisotik haratago, esku hartu ahal izateko nahitaezkoa da plano guztietan lan egitea. Prebentzioan, detekzioan, arretan, babesean, koordinazioan, justizian, eta baita erreparazioan ere”.

Mujikak omenaldirik eta aitormenik sentikorrena eskaini zien biolentzia sufritzea inoiz merezi izan ez zuten emakumei. Azkenik, lehen aipatu kartelak hizpide izan zituen. “Emakumeek egunerokoan pairatzen duten indarkeria islatzen duten esaldiak itsatsi dira kalean zehar, eta horiekin egiturazkoa den in-

darkeria ikustarazi nahi izan da. Eguneroko ogi dira, gure bizitzako momentu askotako egoera errealak islatzen dituztenak. Gogorrek dira, krudelak, baina krudelagoa da egunero jasaten dugun indarkeria, eta horregatik diogu ez dugula horrelakorik onartuko. Horrekin amaitu beharra dago, gaur hobe bihar baino. Lan egin dezagun guztiok, baikoitzak bere esparruan”.

EKITALDIK EGUNOTAN

• Hitzaldia

Azaroak 30, osteguna. Urigain. 17:30.

“Jostailu ez sexistak aukeratzen”. Ametsondoa elkarteak antolatutako hitzaldia.

• Informazio gunea

Abenduak 4, astelehena. Zumea Plaza. 16:00etatik aurrera. Emakunderen autobus ibiltaria.

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA ANDOAINEN ETA URNIETAN



Zuena emakume taldeko kideek larunbateko kalejiran parte hartu zuten.



Belaunaldi ezberdinetako herrikideak hurbildu ziren azaroaren 25eko hitzordura.



Malen Otxoa eta Itxaso Sanchez musikariek bi kanta eskaini zituzten.



Ane Fernandez eta Maider Arabalaza dantzariak.



Esti Mujika, Emakume eta Gizonen berdintasun lan-saileko zinegotzia.

Sentsibilizazio ekimen ezberdinak Urnietan



Egape ikastolak, beste hainbat erakundek bezala, lanketa berezia egin zuen azaroaren 25aren harira.



Urnietako Udalak bilkura isila deitu zuen azaroaren 25ean, San Juan plazan. Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko egunean eraildakoak gogoan hartu eta gizarte osoari dagokion arazoarekin kontzientziatzeko deia luzatu zuten.

Azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko egunean, Urnietako Udalak bilkura isila deitu zuen San Juan plazan. Udal ordezkariak hiru alderdi politikotako zinegotziekin batera, hainbat ur-

niatar hurbildu zen ekitaldira. Hainbat minutuz isilean egon eta gero, Urnietako alkateak kontzientziatzeko sakontzeko beharra azpimarratu zuen. Bertaratu zirenei, Udalak azaroaren 25erako adosturiko adierazpena banatu zien

idatziz. Adierazpenarekin batera, urtean zehar estatu mailan eraildako emakumeen eta haien seme-alaben zerrenda agertzen zen. Eraso bakoitzak biktima anitz uzten dituelako. Ekimenaren atarian, erakunde ezberdinetan lanketa

egin zen. Esaterako, Egape ikastolan. Azaroaren 24an ikasle eta irakasle asko morez jantzita agertu ziren ikastolara, puntu morea paparrean jarrita. Ostira-lean ere "La habitación" filma eskaini zuten Sarobe antzokian.

SANTA ZEZILIA, MUSIKARIEN EGUNA

Musika kalean, estrainekez Santa Zezilia egunean

Abeslari eta musikari talde handia irten zen Urnietako kaleetan barrera, Santa Zezilia egunarekin bat eginik. Lourdes Iriondo musika eskolako kideen ekimena izan zen, ikasturtean zehar ikasitakoa es-

kolatik kalera ateratzea helburu zuena. Ikasleei eta, bereziki, jai eguna zuten irakasleei esker egin zuten estreinaldiko kalejira. Herrian sortu zen giroa ikusita, errepikatzeko moduko ekitaldia dirudi.

Egungo zuzendaritzaren ekimenez, musika eskolako kideak kalera irten ziren Santa Zezilia egunez. Emanaldi berezia izan zen, Urnietan estrainekez eskaini zutena. Trikitilariak, piano jotzaileak eta beste hainbat musikarik ilunduta zegoen herrigunea musika doinuekin argitu zuten. Ahotsez eta musikaz, Santa Zezilia musikarien zaindaria goratu zuten. Udazken beteko giro hotzean, estimatzen da kaleak biziberritzeko antolatzen den ekimen oro. Santa Zeziliako kalejirarekin musika kalera atera zuten, eguneroko musika eskolako lezioak beste baterako utzita.

Ikasi, hobetu eta berrikasi musika eskolan egiten da. Hori egitea behar beharrezkoa da. Bada, ordea, musikariaren gida-liburuan bigarren elementu saihestezina: trebaketa. Jendaurrean egiten diren emanaldi guztiak garrantzia handikoak izaten dira. Ikasi, eskolan ikasiko dute. Baina zuzeneko bezalako trebaketa saiorik ez dago. Ikusleen aurrean ondo aritzeko nahi hori, musikari bezala hobetzeko metodorik eraginkorrena da. Urnietan ikasle ugari bikain aritu zen, jendaurreko emanaldian. Ez ohiko agertokian gainera: Kalean.



Lourdes Iriondo udal musika eskolako abeslariak eta musikariak elkarrekin irten ziren, joan zen azaroaren 22an.



Musika eskolatik atera eta lehen geldialdia udaletxe aurrean egin zuten. Bertan Huntza taldearen "Aldapan gora" abesti famatua abestu zuten.



Emanaldi ezberdinak eskaini zituzten, kalez kale.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia

2017, abendua

Ahoz aho,
bizi-bizi



AHOBIZI



BELARRIPREST

EUSKARALDIA

Día Internacional del Euskera

Dia Internacional da Lingua Vasca

Dia Internacional de l'Euskera

الأوسانرا للغة العالمة الیوم

Journée internationale de la langue basque

Zlua internatjonală a limbii basce

اليوم الدولي للغة الباسك

Dia Internacional da Língua Basca

अन्तराष्ट्रीय बास्क भाषा दिवस

Internasionale Dag van die Baskiese Taal

国际巴斯克语日

Siku ya Kimataifa ya lugha ya Kibasque

Международный день баскского языка

バスク語の国際デー

Міжнародний день баскської мови

Euskera shimimanta tukuy llaktakunapi puncha

Euskerazugun ñi antü

International Day of the Basque Language

Abenduak 2, larunbata

11:15ean

Juanita Alkain Plazan bilduko gara. Ondoren, kalejira trikitilari, txistulari eta buruhandiekin Kale Nagusian zehar, Zumea plazaraino.

12:00etan

Ekitaldi berezia, Zumea plazan

- Txalapartariak
- Musikariak
- Abestariak
- Dantzariak
- Argixoren bisita
- Bukaera borobila
- Talogileak



ANDOAIN
AITA LARRAMENDI IKASTOLA

PUSKOPAZ
WIZI
INDIA GUT

Bikam



Andoaingo ahotsak eta hizkera betiko gordetzeko egitasmoa

AHOTSAK EGITASMOAK, NAGUSIKI, AURREKO MENDE HASIERAKO ANDOAIN HURA EZAGUTU ETA BIZI IZAN ZUTENEN LEKUKOTZA JASO ZUEN. IGANDEAN LAGIN BAT ESKAINIKO DUTE BASTERON, ORDU ERDIKO IKUS-ENTZUNEZKOA.

Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea biltzeko jaio zen Ahotsak egitasmoa, 2004. urtean. Egitasmo honen bultzatzaileek, herriz herri, adineko jendea elkarrizketatzen dute euren euskara eta bizipenak jasoz. Internet sarean, gainera, gaika antolatuta daukate oso modu txukunean. Elkarrizketatuak XX. mende hasieran jaiotakoak dira, gehien-gehienak; nor bere herriko eta bertako herritarren bizitza, bizimodu eta pasadizoak aditzera ematen dituelarik.

Badihardugu Euskara Elkartea arduratzen ari da egitasmoaz eta webguneaz, baina Euskal Herriko edozein elkarte eta ikerlarik har dezake parte. Era horretan, etengabe ari dira materiala biltzen, lantzen eta internet sarera eramaten. Elkarrizketak batez ere ikuspegi dialektologiko eta etnografiko batetik egiten dituzte. Metodologia sistematikoa jarraitzen dute. Audioz eta bideoz grabatutako elkarrizketak, gero pasarte pasarte banatu eta sailkatzen dituzte. Eta baita horietako batzuk transkribatu ere. Une honetan, 346 herritara irisi dira; eta dagoeneko 5.622 pertsonen lekukotzak jaso dituzte. 46.825 bideo-pasarte daude ikusgai ahotsak.eus webgunean. Andoaingo herriari dago-kionez, 73 herritarren lekukotzak entzun eta ikusgai daitezke gaur egun; pasarteak 1.807 dira, eta 1.619 bideoak.

Urnietaren kasuan, 37 hizlarirekin egindako elkarrizketak aurki daitezke. Guztira 786 pasarte dira, 785 bideotan.

Andoaindarrei egindako elkarrizketa gehienak Ahotsak egitasmoa **Ainhoa Ansa** eta **Miren Artetxek** egin dituzte. Baina tartean badira gehiago. Esaterako, **Leire Ibañez** (*Beterriko kantak* proiektua), **Manuel Larramendi Kultur Bazkuna** (*Atzoko Andoain eta andoaindarrak*), **Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzua** (*Orria* aldizkaria) eta Andoaingo ikastetxeetan 1996an zenbait andoaindarri egindako elkarrizketak (*Ahoz ahoz, belaunez belaun* ekimena).

Elkarrizketa horietan guztietan euskara zoragarria entzun daiteke, kasu gehienetan Andoaingo berezko hizkeraz bustita. Hitza hartzen duten protagonistek, nor bere ikuspegi eta bizipen pertsonaletik, Andoaingo herriaren historiako pasarte handiak eta txikiak kontatzen dituzte; XX. mendeko lehen hamarkadatan Andoaingo herritarren usadioak eta tradizioak, baserri lanak, ogibide ezberdinetakoa nondik norakoa, sinesmenak, aisialdia, festak eta beste makina bat jarduera ezagutzeko guztiz baliagarria.



Larramendi Kultur Bazkunak bultzatuta "Atzoko Andoain eta andoaindarrak" ekimenean parte hartu zuten zenbait lekuko emaile ageri dira argazkian, Borda jate-txean 2.000 urteko ekimenean egin zuten bilkuran. Horiek denek eta andoaindar gehiagok, gerora, Ahotsak ekimenean lekukotza eman zuten. Zutik atzean, Joxe Manuel Erkizia eta Maria Esther Arrieta (†). Erdian, Bixente Huizi (†), Loren Navarro (†), Mikela Ansa (†), Patxi Irizar (†), Roke Ansa (†) eta Iñaki Arregi. Aurrean, Joxe Mari Olazabal (†), Migel Amas (†), Miren Zarraga, Joxepa Ormaetxea (†) eta Bixente Olano (†).

Ahotsak egitasmoan agertzen diren andoaindarrak

Aizpurua Ormaetxea, Juan Bautista.
Aizpurua Otegi, Juan.
Amas Egibar, Migel.
Amenabar Laskibar, Angel.
Amenabar Laskibar, Maria Angeles.
Amutxastegi Aranzabal, Joxeba.
Ansa Goenaga, Bitoriano.
Ansa Goenaga, Migel.
Ansa Goenaga, Mikela.
Ansa Goenaga, Roke.
Ansa Uribe, Maria Jesus.
Ansa Zinkunegi, Erramun.
Ansa Zinkunegi, Mari Karmen.
Aranburu Artano, Martin.
Aranburu Artano, Txomin.
Aranburu Etxebarria, Luxio.
Arregi Arizaga, Primitibo.
Arregi Moraza, Iñaki.
Arrieta, Maria Esther.
Arruabarrena Arruti, Maria Dolores.
Arruti Iturriotz, Juan Bautista "Talai".
Artano Arruabarrena, Arantxa.
Artolazabal Ibarrodo, Rosarito.
Barandiaran Iturriotz, Juan Bautista.
Begiristain Urtxoegia, Roxario.

Belamendia Arrillaga, Fermin.
Belamendia Tolosa, Maria Angeles.
Beloki Ormazabal, Maria Pilar.
Egibar Juanena, Imanol.
Eizmendi Jauregi, Joxe.
Erkizia Uribe, Joxe Manuel.
Etxebarria Alkain, Roke.
Etxebarria Usandizaga, Inazio.
Etxezarreta Zelaia, Rafael.
Fernandez Izaguirre, Maria Jesus.
Forcada Arrieta, Joxe.
Ganzarain Ansa, Gurutz.
Goikoetxea Orbegozo, Joxe.
Huizi Bereziartu, Joxe Antonio.
Huizi Zuñiga, Delia.
Huizi Zuñiga, Ramon.
Iraola Urtxoegia, Joxe.
Irazusta Larrea, Migel.
Irizar Zarautz, Patxi 'Garro'.
Jauregi Sorondo, Pedro.
Jauregi Ulazia, Carmen.
Julio Hurtado, Gorka 'Teketen'.
Mendikute Garmendia, Ixiar.
Mendikute Garmendia, Kristina.

Mendikute Garmendia, Loli.
Mendiluze Elizondo, Iñaxio 'Fondako Iñaxito'.
Mujika Otegi, Mertxe.
Muñagorri Muñoa, Miel.
Navarro Hombrados, Loren.
Oizartabal Usandizaga, Maria.
Oizartabal Beloki, Jose Mari.
Olano Otegi, Bixente.
Olazabal Iñurrita, Jose Mari.
Otamendi Berasain, Jesus Mari.
Roldan Iturriotz, Xalbadora.
Sagarzazu Iturritza, Mari Cruz.
Uranga Jauregi, Maria.
Urola Oizartabal, Joxe Mari 'Bekaxitei'.
Usandizaga Murgiondo, Txomin.
Usarralde Laskibar, Joxe Luis 'Iyuya'.
Zabala Agirre, Martin.
Zabala Zalakain, Antonio.
Zabala Zalakain, Bittori.
Zabala Zalakain, Felix 'Galardi'.
Zarraga Pagola, Miren.
Zinkunegi Aranburu, Agustin.
Zinkunegi Irazusta, Maria Kristina.

“Ahoz aho, bizi-bizi. Euskara bizirik eta indartsu nahi dugu Andoainen”

EUSKARAREN EGUNAREN ATARIAN, UDAL ORDEZKARITZA ZABALA AGERTU ZEN HEDABIDEEN AURREAN. HAIEKIN BATERA, HERRIKO ERAGILE EZBERDINAK. EUSKARAK GIZARTE ETA POLITIKA MAILAKO BABES ZABALA LORTU DU URTEOTAN.

Azaroaren 24ko agerraldian, aurtengo egitaraua osatzen elkarlanean jardun duten ikastetxe, euskaltegi eta elkarteetako ordezkariak agertu ziren. Hedabideen aurrean mahaiburu eta bozemaile **Ainara Rodriguez** (EH-Bildu) Euskara zinegotzia aritu ziren. Ez zen bakarrik egon, ondoan baitzituen **Petri Romero** (PSE-EE), **Marijo Izagirre** (EAJ), **Olga Hernandez** (Ganemos) eta **Jorge Mourinho** (Irabazi). Eta haiekin batera, herri erakunde ezberdinetako ordezkariak. Hots, **Aitor Iriondo** (Aita Larramendi ikastola), **Ainhoa Aiertza** (ESCIVI) eta **Jone Tolosa** (AEK euskaltegia).

Elkarrekin ospatzeko arrazoiak ez dira falta adierazi zuten udaletxeko batzar aretoan egindako aurkezpen ekitaldian: “Badugu zer ospatu eta zertaz gozatu: duela berrogei urte arte galtzeko bidean zihoan hizkuntza, euskara, hazkunde bidean jarri dugu denon artean, euskal gizartearen gogo eta ahalegin jarraituari esker. Eta badugu arnas berria hartu eta indartu beharrik ere: izan ere, euskara biziberritzeko bidean asko aurreratu dugun bide horretan alegia, oraindik ere bide luzea geratzen baitzaigu irabazteko. Behar ditugu berri, bide hori egiten jarraitzeko, indarra, kemena eta konpromisoa”.

“EUSKARA BIZIRIK ETA INDARTSU NAHI DUGU ANDOAINEN”

“Gure herriko kale-bizitzan, eskoletako pasillo eta patioetan, lantokietan, merkataritzan, osasun zerbitzuetan, lagunartean, etxeko salan, era guztietako ikuskizunetan..., bizirik eta sasoiko nahi dugu euskara. Andoaindarron bihotzetan ez ezik, ezpainetan ere ikusi/entzun nahi dugu euskara. Maite dugun euskara horren alde egin dezakegun gauzarik inportanteena egin nahi dugu: erabili.

Horretarako daukagun elikagairik indartsuena herritarren gogo eta jokatubidea da. Herritarrek diogunean, herritar bakoitza ez ezik, herri erakundeak, familiak, elkarteak, enpresak, hezkuntza komunitateak, kirol taldeak..., hori guztia esan nahi dugu, horiek guztiak herritarrengan bizi baitira.

Herritarren gogo eta pertseberantzian indarrean sinesten dugu. Gogo hori indartu nahi dugu, bai udal bizitzan, eta baita udalerriko bizitzan ere. Ez dugu nahi ez inor, ez ezer, beste inoren gaitetik. Ez dugu nahi hizkuntza bat edo hiztun bat beste hizkuntza baten edo beste hiztun baten gaitetik. Denok eroso biziko garen Andoain da nahi duguna. Euskararen eta gaztelaniaren au-



Ainara Rodriguez euskara zinegotzia (EH Bildu), **Aitor Iriondo** (Aita Larramendi ikastola), **Ainhoa Aiertza** (ESCIVI), **Jorge Mourinho** (Irabazi), **Marijo Izagirre** (EAJ-PNV), **Jone Tolosa** (AEK euskaltegia), **Petri Romero** (PSE-EE) eta **Olga Hernandez** (Ganemos) aurtengo egitarauaren aurkezpen ekitaldian.

“Euskararen Eguna baliatu nahi dugu euskara indarberritzeko, andoaindarron euskararekiko lotura sendotzeko”

kerak, biak egiazki errespetatu daitezkeen nahi dugu. Aukera berdintasun benetako nahi dugu hizkuntza-hautuak egiterakoan ere. Eta, horretarako, badakigu gaitetik behar dugula, gaur, Andoainen ere bizirik, biziegi, dagoen euskara eta gaztelaniaren arteko desoreka. Gero eta indartsuago, bai, bistan denez, baina oraindik ere kasu askotan ahul da euskara gaztelaniarekiko.

Horregatik, euskara arnastu eta hauspotu behar dugu, eta horregatik nahi dugu Euskararen Eguna baliatzea euskara indarberritzeko, andoaindarron euskararekiko lotura sendotzeko, euskararen erabileran urratsak ematen jarraitzeko”.

“Aurtengo kanpaina keinu bat egin nahi izan diegu Andoainen hitz egiten diren beste hizkuntzei”

ANDOINGO HIZKUNTZA ANIZTASUNARI KEINUA KARTEL IRAGARLEAN

Euskararen egunerako diseinatu duten kartelean aniztasunari keinua egin nahi izan diote, hainbat hizkuntzari tartea eginez: “Día Internacional da Lingua Vasca”, “Journée internationale de la langue basque”, “International Day of the Basque Language”..., Andoainen hitz egiten diren beste hizkuntzei egindako aitortza zela adierazi zuen Ainara Rodriguezek: “Ez dugu hizkuntza bat edo hiztun bat beste inoren gaitetik egotea nahi, eta horregatik, hizkuntzei diegun aitormenetik abiatuta, keinu bat egin nahi izan diegu Andoainen hitz egiten diren beste hizkuntzei. Kartelean ja-

“Behar ditugu berri euskararen aldeko bide hori egiten jarraitzeko indarra, kemena eta konpromisoa”

sozten dira hizkuntza horiek: gaztelania, galiziera, katalana, hassania, frantsesa, errumaniera, arabiera, portugesa, nepaliara, afrikaansa, txinera sinplifikatua, suajilia, errusiera, japoniera, ukrainiera, kitxuera, mapuzunguna eta ingelesa”.

UDALAREN KONPROMISOA

“Udalak ere badu zer hobeturik, eta hobekuntza horretarako indarra hartzeko izan bekigu Euskararen eguna. Andoaindar guztiak gonbidatu nahi ditugu euskararekiko duten lotura indartu eta berpiztu dezaten: euskaraz badakitenek, bakoitzak bere neurrian, erabiliz, eta ez dakitenek euskarara hurbilduz. Ahoz aho, bizi-bizi, euskara Andoainen”.

Benito Lertxundi



Benito Lertxundi kantaria.

Abenduak 1, ostirala
21:30 Bastero

Ezer baino lehen, azken orduan sarre-
ra erostera ohituta daudenentzat: Ez
da sarrerarik geratzen, ostiral honeta-
koak agortu dira. Ibilbide luzea eta
oparoa egin du oriotarrak euskal mu-
sikagintzan. Arrakastaren aparrean bi-
zi izan den kantari bakanetakoa da,
eta oraindik orain entzuleen erantzun
aparta jasotzen darrai. 1960ko hamar-
kadan Ez Dok Amairu mugimenduko
kide izan zen. Eta 1971. urtean bere

izena zeraman lehen diskoa aurkeztu
zuen. Hortik aurrera, euskal kantagin-
tzaren ikurretakoa bilakatu da.

Ohiko duen bezala, berarekin bate-
ra taulagainera eskarmentu handiko
musikari talde handia igoko da. Bas-
teroko emanaldiarekin abendu oparo-
ari ekingo dio Altsasun, Baionan,
Errenterian, Iruñean eta Gasteizen
kontzertuak eskainiz.

Sarrera garaiz hartzeko aukera izan
dutenek Benitoren kantuez gozatzeko
aukera paregabea izango dute.

'Ez dok hiru' antzezlan



Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktoreak "Ez dok hiru" antzezlanean.

Abenduak 3, igandea
20:00 Bastero

Euskal antzerkigintzan aski ezagunak
dira **Patxo Telleria** eta **Mikel Martinez** ak-
toreak. Andoainera datoz *Ez dok Hiru*
antzeppen berriena eskaintzera. Egileek
aitortu bezala, "publiko helduari zuzen-
dutakoa da, umorezkoa eta euskaraz".
Euskal Herriko imajinario musikalaren
errepaso ironiko, absurdu eta dibertigar-
ria eskainiko dute: "Ez dok hiru" kantu-
tegian oinarritutako ikuskizun teatrala
da. Gure modukoa, eroa, deskonzertan-

tea, irrigarria azalez... Baina azal ho-
rren poro bakoitzari geure musikareki-
ko maitasuna dario". Oraingo honetan,
bikoteak beste hiru musikari-aktore-
ekin partekatuko du taula (**Adrian Garcia**,
Maria Arriaga eta **Ivan Allue**), hitzari zu-
zeneko musikaren indarra gehiturik.

Tartean Teatroa konpainiaren ezaugar-
ririk nabarmenena sorkuntza da: ikus-
kizunak taldeko kideek sortutako testu
eta ideiekin eraikitzen dira. Antzezlari
berriaren indarra euskara, hitza, umo-
rea eta antzezpenean datza.

Haur ikuskizun berria



Pupu eta Loreren emanaldirako sarrerak dagoeneko agortu dira.

Abenduak 1, ostirala
18:00 Bastero

Azken orduan antolatutako ekitaldia
izan da, Euskararen nazioarteko egu-
naren egitarauan sar zitekeena. Eman-
aldi honetarako sarrerak dagoeneko
agortu dira. Katxiporreta konpainiak,

azken urteotan, bi ikuskizun ibiltari
antolatzeari ekin dio: **Pirritx**, **Porrotx**
eta **Marimototsek** eskaintzen dutena
eta haien *spin off* moduko uler daite-
keen **Pupu eta Lore**. Bi haurtxoen
abentura berriak ikusgai izango dira
Basteroko ekitaldi aretoan.

Musika zuzenean



Joxan Goikoetxea, Iosune Marin eta Olatz Prat aurtengo Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietan.

Abenduak 3, igandea
12:00 Bastero

Euskararen nazioarteko egunean, An-
doingo Udalak ekitaldia antolatu du
Basteron, eta bertan **Ahotsak** egitasmorako
XX. mendearen lekukotza bizia
eman zuten herrikideei aitortza egingo

zaie. Ekitaldian, ordu erdiko ikus-
entzunezkoa eskainiko dute. Ez da, gaine-
ra, zuzeneko musika faltako. Aurtengo
Rikardo Arregi kazetaritza sarietan
egin bezala, **Joxan Goikoetxea**, **Iosune**
Marin eta **Olatz Prat** musikariek maila
handiko saioa eskainiko dute.

Egitarau oparoa



Ginkanaren finala ostiral honetan izango da Hernani-Galarretako Orona eraikinean.

Azaroak 30, osteguna

18:00 Kantujira Basterotik Zumea plazaraino, Andoaingo AEK-k antolatua.

Abenduak 1, ostirala

11:00 "Andoain laburrean" bideo lehiaketaren aurkezpena udaletxean, Andoaingo Udalak eta ESCIVI zine eskolak antolatua.

17:00 Buruntzaldeko I Euskararen Ginkanaren finala Oronan. Andoain, Astigarraga, Lasarte-Oria, Hernani, Urnieta eta Usurbilgo 23 gazte talde ari dira urrian eta azaroan euskara eta hizkuntza aniztasunaren gaineko lehiaketan parte hartzen.

21:30 Benito Lertxundi Bastero kulturgunean.

Abenduak 2, larunbata

12:00 Festa Zumea plazan: txalapartariak, abeslariak, musikariak, dantzariak, talogileak, Argitxoren bisita. Kalejira iritsiko dira Juanita Alkain plazatik. Aita Larramendi ikastola antolatua.

20:30 Bertso afaria Santa Krutz elkar-tean: Sebastian Lizaso eta Iker Zubeldia bertsolariak.

Abenduak 3, igandea

Euskararen Nazioarteko Eguna

12:00 'Andoaingo Ahotsak' izeneko ekitaldia, Bastero kulturgunean. XX mendearen hasierako Andoain ezagutu eta bizi izan zuten Andoaingo 73 herritarri urteetan zehar egin zaizkien elkarrizketak jaso dira, eta elkarrizketa haien 30 minutuko laburpena jasotzen duen bideoa proiektatuko da. Elkarrizketatuei aitormena egingo zaie, batzuei zuzenean eta beste askori euren familiakideen eskutik. Udalak eta Badihardugu Euskara Elkarteak elkarrekin garatutako proiektua da. Ekitaldian zuzeneko musika izango da Joxan Goikoetxea, Iosune Marin eta Olatz Praten eskutik. Bukaeran, pintxo dastaketa.

20:00 Antzerkia Basteron, "Ez Dok Hiru" obra, Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreen eta hiru musikariren eskutik.

Abenduak 1, 4 eta 5:

Aita Larramendi ikastola, La Salle-Berrozpe, Leizaran eta Ondarreta ikastetxeek Euskararen egunari lotutako ekintza propioak burutuko dituzte euren eskoletan.

'Handia' Urnietan

Abenduak 3, igandea

Euskararen Nazioarteko Eguna

19:00 Urnietako Udalak 'Handia' film ezaguna eskainiko du Saroben,

euskararen egunarekin bat egingo. Donostiako Zinemaldian aurkeztu eta saritu zuten, ibilbide oparoari hasiera emanez.

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2017

ANDOAIN
ABENDUAK 3

Ahoz aho,
bizi-bizi

Día Internacional del Euskera

Dia Internacional da Lingua Vasca
Dia Internacional de l'Euskera
اليوم الدولي للغة العالمة العالمة
Journée internationale de la langue basque
Ziua internațională a limbii basce
اليوم الدولي للغة الباسك
Dia Internacional da Língua Basca
अन्तरराष्ट्रीय बसक भाषा दिवस
Internasionale Dag van die Baskiese Taal
國際巴斯克語日
Siku ya Kimataifa ya lugha ya Kibasque
Международный день баскского языка
باسک 語の國際デー
Міжнародний день баскської мови
Euskera shimimanta tukuy llaktakunapi puncha
Euskerazugun n̄i antũ
International Day of the Basque Language

www.andoaindarraeuskaraz.eus

Euskararen erabilera, ohitura bilakatu nahian

EUSKARALDIA EKIMENA JAIO DA, EUSKALTZALEAK AKTIBATU ETA HIZKUNTZA OHITURAK ALDATZEA HELBURU DUENA; DATORREN URTEKO AZAROAREN HOGEITA HIRUAN HASI ETA ABENDUAREN HIRURA ARTE LUZATUKO DA.



Azaroaren 23ko arkezpenera hurbildu ziren erakundeak honako hauek izan ziren: Euskara elkarten Topagunea, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Tokikom, Kontseilua, Euskararen Erakunde Publikoa, Ikastolen Elkarte, Eudel, Ttakun Elkarte, Uema eta beste erakunde batzuk.

Euskaraldia ekimena sortu da, zenbait eragileren eskutik. Azaroaren 23an aurkeztu zuten, Bilboko Arriaga antzokian. Ekimena aurkezteko aukeratutako eguna ez zen zorizkoa izan. Izan ere, urtebete barru, azaroaren 23an bertan abiatuko da euskararen lurralde osoan batera egingo den aktibazio ekimen handia. Hala, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra hizkuntza ohituretan eragiteko helburuarekin, lehenengo Euskaraldia egingo da, **11 egun euskaraz** lelopean.

Euskaraz hitz egin edo ulertzeko gai diren herritarrak izango dira ekimeneko protagonista, eta, hamaika egunetan zehar, beraien ohiko harreman sareetan euskaraz aritzeko gonbita egingo zaie, inertziak apurtu eta euskarazko hizkuntza praktikak bultzatzeko helburuarekin.

Aurkezpen ekitaldian izan ziren: **Bingen Zupiria** Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika eta Kultura Sailburua; **Elena Laka** Euskaltzaleen Topaguneako lehendakaria; **Paul Bilbao** Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko idazkari

Herritar euskaltzaleak aktibatu eta hizkuntza ohiturak aldatzea da Euskaraldia ekimenaren helburua, datorren urtean Euskal Herri osora zabaldu nahi dutena

nagusia; **Naiara Mujika** Lasarteko Ttakun elkarteko kidea; **Beñat Arrabit** Euskararen Erakunde Publikoko presidentea eta Euskal Elkargoko hizkuntza politikaren arduraduna; eta **Arrate Illaro** Euskaraldia-ren koordinatzailea eta Euskaltzaleen Topaguneako kidea. Euren batera, orain arte egitasmoan laguntzeko gogoia agertu duten hainbat erakunde sustatzailearen babesa izan zuten aurkezpenean. Aurrerantzean ere, entitate gehiago ekimenera batzeko atea irekita egongo da.

PARTE HARTZEKO ATEAK ZABALIK

Ekimenaren helburua herritar euskaltzaleak aktibatu eta hizkuntza ohiturak aldatzea da.

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra hizkuntza ohituretan eragiteko helburuarekin lehenengo Euskaraldia egingo da, '11 egun euskaraz' lelopean

Euskal Herriko hainbat euskaltzale elkarten urteetan zehar landu duten **Euskarak 365 egun** lan dinamikaren baitan kokatzen da ekimen hori, eta bi mugarri ditu: batetik, hiztunen hizkuntza ohituretan eragin eta beraien harreman sareetan euskara gehiago erabiltzea izango da lortu nahi dena; bestetik, hizkuntzaren normalizazioaren ardura pertsonen eta entitateen artean partekatua denez, 2019an mota guztietako entitateek euskararen erabilera babesteko eta bultzatzeko neurriak hartzea izango da helburua.

Aktibazioak martxan jartzea esan nahi du. Hizkuntzaren erabilerari lotutako kontzeptua da, euskaraz hitz egiten dakitenek edota euskara ulertzeko

Tokian tokiko euskaltzaleak izango dira herri bakoitzeko dinamiken sustatzaileak, eta inguru soziolinguistiko zein tokian tokiko errealitatera moldatzeko modukoa izango da

gaitasuna daukatenek euskara erabili dezaten lortu nahi dutelako koordinatzaileak.

Hamaika egun horietan, 16 urtetik gorako herritarrak ahobizi eta belarriprest bihurtu nahi dituzte. Lehenaren ardura izango da euskaraz hitz egitea ulertzeko gai diren guztiei, haiek erdaraz erantzun arren. Bigarrenaren zeregina, aldiz, dakienari euskaraz hitz egiteko gonbita egitea izango da. Nolanahi ere, euskaraz hitz egiteko gai diren parte-hartzaileek eurek erabakiko dute batere edo bestearen rola jokatu.

Ekimena Euskal Herri osoan egingo den arren, tokian tokiko euskaltzaleak izango dira herri bakoitzeko dinamiken sustatzaileak, eta inguru soziolinguisti-

"Erakundeetatik lan egin behar dugu erabilera erraztu dezaketen baldintzak sortzeko. Euskaraldia egitasmoa eraginkorra izango da bide horretan"
Bingen Zupiria • Jaurlaritza

"Euskaraldia urtebete lehenago aurkeztu dugu, elkarlanean martxan jartzeko eta herritarrei formazioa eskaintzeko denbora behar delako"
Arrate Illaro • Topagunea

ko zein tokian tokiko errealitatera moldatzeko modukoa izango da.

Antolaketa, beraz, hainbat auzo, herri eta eskualdetako euskaltzale taldeak arituko dira, baita elkarte, enpresa zein erakunde ezberdinetakoak ere. Beren eragite eremua tokikoa zein Euskal Herri mailakoa izan daiteke. Era berean, Euskal Herritik kanpoko euskal hiztunen komunitateetan ekimena gauzatu nahi izanez gero, parte hartzeko atak zabalik daude.

Herri eta entitateek 2018ko lehen hiruhilekoan izango dute izena emateko aukera eta udaberrirako jakin ahal izango da zenbat herri eta gunetan parte hartu ahal izango duten hiztunek 2018ko Euskaraldia-n. Hala ere, une honetan berrogei herritatik gora datorren urteko Euskaraldia-ren antolaketan murgilduta daudela aurreratu dute sustatzaileek –tartean, hiriburu nagusietan– eta datorren urtearen hasierarako eskualde gehiagotara heltzea espero dutela azpimarratu dute.

Herritarrek, berriz, 2018ko udazkenean izango dute Euskaraldia-n izena emateko aukera. Izen-ematea 2018ko irailean zabalduko da eta *ahobizi* zein *belarriprest* modura parte hartu ahal izango dute nahi duten herritar guztiek. Ekimenak iraungo duen hamaika egunetan ahobizi edo belarriprest identifikazio ikurra erabiliko dute parte hartzaile guztiek.

ELKARLANAREN GARRANTZIA

Elkarlanaren garrantzia azpimarratu zuten aurkezpenean parte hartu zuten eragile guztiek. Azken hilabeteetan hizkuntzaren normalizazioaren bueltan ari diren erakundeek elkarlanaren beharra behin eta berriz azaldu zuten, eta Euskaraldia elkarlan hori gauzatzeko aukera paregabea dela. Euskal Herri mailan gertatzen hasi den elkarlan dinamika hori herriz herri ere gauzatzea bada ekimen berri horren helburua.

Ana Ollok, Nafarroako Gobernuoko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak, tokian tokiko errealitateen aberastasunari erreparatu zion. "Nafarroan, egoera soziolinguistikoa ezberdinak ditugu. Hortaz, erabilerari bultzada emateko planteatzen ditugun egitasmoak egoera horiei egokitu behar zaizkie arrakastatsuek izateko, euskararen aktibazioa modu erakargarri eta positiboan eginez". Hain zuzen, Euskaltzaleen Topaguneako **Arrate Illarok** errealitate ezberdin horien markoan ariketa garrantzitsua azpimarratu zuen. "Euskaraldia urtebete lehenago aurkeztu dugu, elkarlanean martxan jartzeko eta herritarrei formazioa eskaintzeko denbora behar delako. Elkarlanean, euskararen sustapenean lanean ari garen entitateen, bestelako alorretan ari diren entitate euskaltzaleen eta herritar euskaltzaleen artean

gauzatu dugu Euskaraldia. Hortaz, elkarlana funtsezkoa da ekimena aurrera eraman ahal izateko. Euskaltzaleen Topagunea-ko lehendakari **Elena Laka**-ren esanetan: "Azken urteotan hainbestetan aldarrikatu izan dugun elkarlana ekimen zehatz baten bueltan ardazu nahiko genuke. Herriz herri auzolanerako eta eragileen arteko harremanetarako eremu izatea gustatuko litzaiguke".

Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak nabarmendu zuen euskararen erabilera errazteko instituzioetatik lan egin behar dela. "Erakundeetatik lan egin behar dugu erabilera erraztu dezaketen baldintzak sortzeko; izan ere, hainbat ingurune zailagoak dira oraindik ere euskara erabili ahal izateko. Euskaraldia egitasmoa eraginkorra izango da bide horretan". Hein horretan, **Beñat Arrabitek**, Euskararen Erakunde Publikoko presidentea, aldeko pausoak berretsi zituen. "Euskaraldia-ren pertsonaia nagusiak herritarrek izanen dira. Halere, euskararen erabilera handitzeko ardura partekatua da: bakoitzarena eta molde guztietako entitateena. Alabaina, norbanakoen urratsek erakundeen geriza behar dute; euskarazko harremanak posible izan daitezten, baldintzak ezarri behar ditugu erakundeetatik. Bide horretan, gure engeinamendua adierazi nahi dugu".

Jone Guenetxea Tokikomeko presidentea, berriz, "ezinbesteko" ikusten du indarrak batzea. "Tokian tokiko hedabideek ekimenean joka dezakegun papera inportantea izango da", azpimarratu zuen.

AURREKARIAK

Euskaraldia ez da hutsetik abiatzen. Azken bi urteotan Euskal Herriko hainbat herritan martxan jarri diren dinamikean du abiapuntua. 2016ko otsailean Donostiako Egia auzoan bertako euskaltzaleek martxan jarritako **Egiaz euskaraz bizi nahi dugulako** ekimenak hoge herri eta eskualdetan izan du segida. Euskaraldiak 2018an Euskal Herri osoa zabaldu nahi du Egiaz hasitakoa.

Ekimen horietan guztietan euskaltzaleek izandako protagonismoa azpimarratu zuten antolatzaileek, herri ekimen sendoak sortu baitira antolakuntzaren inguruan. Gainera, orain arteko esperientzia guztietan balorazio ona egin da, partaideen bizipenetan eta hizkuntza ohitura aldatzeko izandako eraginagatik, eta euskaltzaleen aktibazioak ekarritako herri dinamikengatik.

Era berean, azken urteetan Euskararen Nazioarteko Egunen bueltan sortutako **Euskarak 365 egun** dinamika hedatu eta zabaldu egin dela azaldu zuten antolatzaileek. Dinamikak hizkuntzaren erabileran proposamen praktikoak egiteko norabidea hartu du.



Elena Laka euskaltzaleen topaguneako lehendakaria.

"Ezagutzaren gorakadarekin erabilera handitzeko baldintzak areagotzen dira"

"Euskal hiztun guztiei eta euskaraz ulertzeko gai diren guztiei eguneroko bizitzan ohituraz aldatzea proposatzen diegu"

"Pertsona bakoitzak bere eguneroko bizitzan euskaraz jarduteko pertsonak eta espazioak aurki ditzala, euskaraz egiteko"

Azken urteetan euskararen ezagutzak gora egin duela aitortu du **Elena Laka** euskaltzaleen Topaguneako lehendakaria. Baina erabilerak gorakada bera ez izateak kezkatzen du.

20 urte dira Topagunea euskara elkarrekin federazioa sortu zenetik. Zein beharri erantzuteko?

Federazioa egin aurretik, Euskara Elkartek sortu ziren herrietan, duela 25-30 urte inguru, euskaltzaleak eta euskaldunak biltzeko, euskaraz bizi ahal izateko aukerak sortzeko, hizkuntza erabili ahal izateko eta espazioak irabazteko.

Helburua zen, baita ere, euskaraz egiten dugunon komunitatea egituratzea eta indartzea, sakabanatuta nekez praktikatu ahal delako hizkuntza.

Zenbateraino bete dira orduan finkatutako helburuak?

Helburuak bete dira, neurri batean. Garai hartan euskara elkarteak eta hauek saretu eta euren jarduna indartzeko sortu zuten Euskaltzaleen Topaguneak jauzi bat ekarri zuen nahiko sakabanatuta zeuden eremu euskaldunetan, balio izan zuen komunitatea sortzeko. Sortu zen euskararen aldeko mugimendu bat alderdi politikotatik kanpo egon nahi zuena, euskara zentroan jartzeko ideologia zue-

na. Kontua da harrezkero hizkuntzaren ezagutzak gora egin duela euskal gizartean, baina ezagutzaren gorakada horrek ez duela neurri bereko gorakada ekarri euskararen erabileran.

Zer lortu nahi da Euskaraldia ekimena-rekin?

Euskal hiztun guztiei eta euskaraz ulertzeko gai diren guztiei eguneroko bizitzan ohituraz aldatzea proposatzen diegu. Proposatzen dugu pertsona bakoitzak bere eguneroko bizitzan euskaraz jarduteko pertsonak eta espazioak aurki ditzala, eta horiekin euskaraz egiteko konpromisoa har dezala: koadrillan, lanean, dendetan, tabernetan, kirolguneetan, elkarte gastronomikoetan, whatsapp taldeetan, sare sozialetan, auzokideen batzarretan, familiako bazkarietan, pin-txo-potean...

Nola animatuko zenituzke herritarrek parte hartzera?

Hizkuntza ohituraz aldatu egin daitezke, eta parte hartzen duten pertsona guztiek inguruan sare bat topatuko dute, komunitate bat, harrera egingo dieten pertsonak topatuko dituzte, euskaraz, eta barruan daukaten tresna bat, hizkuntza, erabiltzeko aukera izango dute, agian, orain arte egonez ez zeukaten tokian.



Euskaraldiaren koordinatzaile eta Euskaltzaleen Topaguneako kide da Arrate Illaro getxotarra.

"Inertziak apurtu nahi genituzke harremanetan modu berriak sortuta"

"Saiatuko gara baldintzak eskaintzen eta ahalik eta gehien hedatzen, baina herrietako lana ezinbestekoa izango da"

Euskararen erabilera bultzatzea da 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean hainbat herritan egingo den **11 egun euskaraz** dinamikaren helburua. **Euskaraldiaren** koordinatzaile eta Euskaltzaleen Topaguneako kide da **Arrate Illaro** getxotarra. Euskaltzaleen Topagunea da dinamika-aren sustatzaileetako bat.

Euskaraldia. Zer da eta zein da abiapuntua?

Euskaraz 365 egun dinamikaren barruan kokatzen den dinamika da Euskaraldia. Helburua da hizkuntza ohiturak aldatzea, euskararen erabilera areagotzea, euskaltzaleak aktibatuta.

Zertarako?

Pertsonen egunerokoan euskaraz bizi ahal izateko baldintza egokiak izateko. Hamaika eguneko dinamika izango da. Hain zuzen ere, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean aktibatuko ditugu euskal herritarrak. Euren egunerokoan euskara gehiago egiteko dinamika bat izango da.

Nola lortuko da hori?

Bi rol sortuko ditugu: batetik, egongo da **ahobizia**. Hori izango da euskaraz egingo dena euskaraz ulertzen duten guztiei, baita ezezagunei ere. Lehen berba beti izango da euskaraz. Beste-

"Neurketek geldialdia erakutsi zuten euskararen erabilerari dagokionez, hortik erabilera bultzatzeko baldintzak aldatzea ondorioztatu zen"

ak ulertzen badu, jarraituko dute euskaraz, noski. Eta beste rola da **belarriprest** deritzona. Identifikazio edo txapa baten bidez adieraziko diete gai-nontzekoei beraiekin euskaraz egin dezaketela. Belarriprestak, gutxienez, ulertzen du euskara.

Aktibazio ekimenak, baina, martxan daude dagoeneko...

Azken bi urteetan aktibazio ekimen asko egin dira Euskal Herrian, eta Euskaraldia, hain zuzen ere, hori da, aktibazio dinamika horiek hedatzea. Hau herrietan sortu den ekimena da, eta herriek egingo dute. Saiatuko gara baldintzak eskaintzen eta ahalik eta gehien hedatzen, baina herrietako lana ezinbestekoa izango da.

Zergatik eragin, orain, hizkuntza portaeretan?

Momentua delako inertziak apurtzeko, inflexio-puntu batean gaudelako. Izan ere, neurketek 2011n eta 2016an geldialdi bat erakutsi zuten euskararen erabilerari dagokionez, eta hortik ondorioztatu zen erabilera bultzatzeko baldintzak aldatu beharra zedela. Inertziak apurtu gura genituzke harremanetan modu berriak sortuta eta inertziak apurtu gura genituzke lan egiteko moduan, planteatu dugulako elkarlanean lan egitea.



Pello Jauregi hezkuntza zientzietan doktore da EHUko Hezkuntza, filosofia eta antropologia fakultatean.

"Erabilera ohiturak mugitu daitezkeela frogatu dugu"

"Baldintza erosoak eta egokiak sortu behar ditugu. Baldintza horiek ematen direnean, euskaldunok, normalean, joera euskaraz hitz egitekoa dugu"

EHUko Hezkuntza, filosofia eta Antropologia Fakultatean irakasle da gaur egun **Pello Jauregi** (Pasaia, 1958). Eusle metodologiarekin lan eta lan ibili da azken urteetan, baita Lasarte-Orian aurrera eramanez zuten egitasmoan ere. Esperientzia horretatik hizkuntza ohiturak aldatzeko proposamen interesgarriak atera ditu Jauregik.

Zer konta dezakezu Lasarte-Oriako egitasmoaren gainean?

Azken finean, euskaldunok euskaraz egingo badugu, ingurunean baldintza erosoak eta egokiak sortu behar ditugu. Baldintza horiek ematen direnean, euskaldunok, normalean, joera euskaraz hitz egitekoa dugu. Ideia hori operazionalizatu egin dugu, euskaldunei **ahobizi** izena jarri diegu, euskaraz hitz egiteko konpromisoa hartzen dutelako. Baina ingurunean jende mardoa **belarriprest** izenarekin aktibatuko dugu. Agian, euskaraz hitz egiteko gai ez, baina ulertzen dutenak dira. Horrek erraztasuna ematen dio euskaldunari inongo arazorik gabe euskaraz hitz egiteko. Aldi berean martxan jarri ditugu bi figurak.

Zergatik Lasarte-Orian?

Han euskalgintzak urteetako eskarmen-tua du. Gauza asko egin dituzte, urteetan ekintza piloa, baina, hala ere, euskararen erabileran aurrerapenak ez dira

"Euskaldunei ahobizi izena jarri diegu. Beste asko belarriprest izenarekin aktibatuko dugu. Hitz egiteko gai ez baina ulertzen dutenak dira"

nahi bestekoak izan. Orduan, beste zerbait egin beharra ikusten zuten. Guk genituen ideiekin eta Lasarte-Orian zuten indarrarekin eta behararekin jarri genuen ekimena martxan.

Zer ondorio atera dituzue Lasarte-Oriako esperientziatik?

Guztira, sei txanda izan ziren, eta, nolabait, datu horiek bildu ostean, euskararen erabilera igo egin da 21,4 puntu, 0 eta 100 arteko eskalan, belarriprest eta ahobizi izan diren horien konpromisoaren ondorioz. Gero, kanpaina bukatu eta hiru hilabetera berriz neurtu genuen, eta jaitzi egin zen euskararen erabilera, baina oso gutxi, 2,6 puntu bakarrik jaitzi zen. Nolabait, mantendu egin da, guztira, 18 puntu, eta euskararen erabilera ohiturak mugitu egin direla ikusi dugu.

Euskal Herriko beste txoko batzuetara zabaldu daiteke, beraz, egitasmoa?

Bai, noski; zabaldu daiteke eta zabaltzen ari da. Egia da aurrelana oso garrantzitsua dela. Baldintzak prestatu behar dira herrietan. Metodologia badago, baina jende asko mobilizatu behar da eta batera egin behar dute lan. Antolatzearen aldetik indar asko batu behar dira, gero herritar asko mobilizatu ahal izateko. Euskaldunak aktibatuko behar badira, masa kritikoa handi bat behar da, bestela ez da eta herrian ikusaraziko.

SANTA ZEZILIA, MUSIKARIEN EGUNA

Ezin Andoain ulertu musikarik gabe

Suite musikaren aireak nagusitu ziren Andoaingo Udal musika eskolako bandaren igandeko kontzertuan. Suite Clasica (Tomas Aragües), Peer Gynt suite (Edward Grieg) eta Norfolk dances suite

(Philip Sparke) eskaini zituzten Basteroko auditorioan. Eta, ondoren, 'Trentxikitik barrena' piezaren estreinaldia heldu zen, bere egile Joxe Mari Oartzabalen zuzendaritzapean.



Suite klasikoan oinarrituko emanaldiaren amaiera aldera pieza berria estreinatu zuten.



'Trentxikitik barrena' lan berria estrainekoz eskaini zuten, bere egile Oartzabalen zuzendaritzapean.



Azaroaren 22an Udal musika eskolako hainbat irakaslek emanaldi sorpresa eskaini zuten udaletxean.



Ikasle gazteek ostegun arratsaldean musika emanaldia eskaini zuten, Basteroko kanpoaldean.



Santa Zezilia egunean Alberto Agirre abesbatza kalean aritu zen kantari.



Olagain Udal txistulari elkarteko kideak tradizio handiko egunean musika zabaldu zuten, kalez kale.

Abenduaren 9a, Paris

IRITZIA

Jon Garmendia

Bizi naizen herriko kale estu batean kartel bat dago paretari itsatsia, Rue du Midi-ko hamaseigarren portalarren ondoan, pare bat hilabete daramatza han, nahiz eta, eguzki-izpi eta euri-tantei esker, iazkoa dirudien. Guri ere zaharrago dirudigula esaten digutenean, oroituz eguzkia eta eurien higadura aitzaki izan daitezkeela. 'Paix au Pays Basque' dio kartelak, *bakea Euskal Herrian*, eta '9 decembre toutes et tous à Paris', *abenduaren 9an denak Parisera!* Bakearen Artisauek egindako gonbidapena da kartelekoa, ETAre armategiak desegiteagatik ezagun egin zen mugimendu sozialarena, frantsesez, **Artisans de la paix**.

Kafea hartzen dudana ohiko ostatuan ere antzeko kartel bat dago, Eiffel dorrea, eta, aldi berean esku zein uso dirudien marrazki urdina ageri duena. Eliza atarian ere topatu dut bat, eta hau, Mikel Epaltza erretoarek jarri duela pentsatu dut. Arrantzaleen apaiza da bera, itsasgizon izana gaztetan, jakinduria handiko gizona. Berarekin musean jokatze-ko aukera dut, eta bide batez, bere hitzen aberastasunaz gozatzeko zortea, gure Iñaki Aranzadi ahaztezinaren antza hartu nion hastapenetik. Ni jaio nintzen urtean izendatu zuten Ziburuko erretoare, eta frankismotik ihesi etorritako gizon-emakume andana ezagutu du berak, bazterrotan BVE eta GALEK egindako hilketak, ETako militanteak, eta batez ere, konfrontazio armatu eta politikoa behin betirako amaitu eta bakea lortzeko saiakerak ezagutu ditu, haietako batzuetan zuzeneko parte hartzea izan duelarik. Bakerako aukera honen aurrean zirt edo zart egin behar dela argi du, luzeegi irauin baitu gatazkak, sufrimendu gehiegi er-

Postontzia

IÑAKI IGERATEGI ETXARRIREN HERIOTZAK, KARTZELA POLITIKAREN ALDERIK KRUDELENA UTZI DIGU AGERIAN

Andoaingo EH Bildu

Joan zen ostiralean, azaroak 24, Iñaki Igerategi Etxarri 75 urteko andoaindarra zendu zen. Herrian aski ezaguna zen Kaletxikiko bizilagun honen heriotzak tristura eta hutsunea utzi du bere inguru guztian. Doazkie lerro hauetatik, gure doluminak senide eta lagun guztiei.

Iñaki Igerategi Lizarribar andoaindar presoaren aita zen, besteak beste. Iñaki Igerategi Lizarribar, 2012ko otsailetik dago preso. Guardia Zibila atxilotu zuen, eta tratu txarrak eta torturak salatu ostean sartu zuten preso Iñaki. Badajozeko espetxean dago une honetan. 6 urtera izan zen kondenatua, eta 2018ko otsailean espetxetik irtengo da. Kon-



gin duelako, zuzeneko kalteak izan dituztenengan, familiengan, gizarte osoarengan. Etxera itzuli ez diren iheslarien korapiloa askatzeko baitago oraindik, eta presoena katea astunegi delako, azkenean, arintzeko garaia iritsi delako.

Eta bakea iraunkorra izan dadin, egonkorra, denon parte hartzea ezinbestekoa da, herritarrei baitagokie herritarren bizikidetzaren erabakitzeko, askatasunez, bake bideak. Hala ulertu du Parisko Udalak, Jérôme Gleizes zinegotziak aurkeztutako mozioa aho batez onartuta, alderdi politiko guztien baiezkoarekin, Euskal Herriko bake prozesua babestuz, eta Parisko abenduaren 9ko manifestazioari ateak zabalduz. Halatsu ulertu dute Frantziako ehundik gora pertsonalitate ezagunek, fama handikoak, errespetatuak. Guy Bedos humorista, Bruno Solo aktorea, Marie Darrieussecq idazlea, Geneviève Azam ekonomilaria edo Frantziako presidentegai Jean-Luc Mélenchon daude zerrenda horretan. 2 TGV berezi (Abiadura handiko tren) beteta daude, dozenaka autobus, eta 10.000 pertsona espero dira Parisen.

Bakea ez du manifestazio horrek ekarriko, baina irekitako interlokuzioei bultzada emango die, konfiantza sendotzen lagunduko du, konpromisoei etorkizuneko bidea marraztuko die.

Mikelek esaten duen eran, itsasoko bakeaz gozatzeko, txalupa ur gainean jarri eta arraunean egin behar da. Aurrerantz.

dena oso-osorik bete ostean. Bere aitaren heriotzak, berriz ere espetxe politikaren krudeltasuna agerian jarri digu. Aita behar bezala agurtzeko aukerarik ematen ez duen espetxe politikak bat hain zuzen ere. Eta ingresatua egon den denbora guztian, ohiko telefono deien bidez jakin ahal izan du bere aitaren egoeraren berri. Dispersioarekin amaitzea lehentasuna izan behar du giza-eskubideen alde lanean dihardugun guztiontzat. Jakina da, gai hau ez dagoela alderdi politiko guztien agendan.

Ez dela euren lehentasuna. Soilik herri dinamikak eraman dezake gai hau lehentasunen agendan egotea. Andoaingo EH Bildutik, behin-betiko bake eszenatoki bat finkatzeko helburuaren alde lanean jarraituko dugu. Eta presoena gaia konponbidean jarri dadin beharrezkoak diren ekimenak sustatuko ditugu.

KIROL ALBISTEAK

Asier Etxezarreta andoaindarra txapeldunorde, 16 segundura

Jon Iturralde, Gipuzkoako maratoiko txapeldun berria

Donostian igandean jokatu zen maratoian, andoaindarrak 2:34:34ko denbora egin zuen, eta 14. postuan iritsi zen helmugara. **Asier Etxezarreta** bigarren geratu zen txapelketan; ia lasterketa osoa Iturralderekin batera egin ostean.

Iturralderi ezustean etorri zaio Donostian igandean lortu zuen Gipuzkoako txapela. "Urriari, Orreaga-Zubiriko lasterketan harrizintzar bat gaizki zapaldu eta min hartuta egon naiz, ia hilabete osoa behar bezala entrenatu gabe. Hortaz, Donostiako maratoira aspirazio handirik gabe joan nintzen. Burua gehiegi estutu gabe, eta korrika Asier Etxezarretarekin batera egitekotan, gozatzera beste ezertara ez. Baina kilometroak aurrera joan ahala, gorputza eta burua, biak oso ondo igarri nituen. Segi eta segi, eta azkenean Asier eta biok oso denbora ona eginez iritsi ginen helmugara, egia esanda".



Etxezarreta txapeldunorde izan zen igandean, eta Iturralde txapeldun.

43 urte ditu Iturraldek, baina sasoi betean jarraitzen du, 30 urtetik aurreragoko gorputzak eskatzen dituen entrenamendu sistema berriez eta eskarmentuaz baliatuz. Hurrengo hitzorduak neguko kro-

tan jarrira dauzka Iturraldek, Zumeatarra elkarteko beste korrikalari askoren antzera. Dena den, Andoaingo zaletuek Lasterka Itzuli San Silbestrean edukiko dute ikusteko aukera, abenduaren 31n.

MARATOIA

ANDOAIN

| Postua | Izena | Denbora | Km-ko |
|--------|------------------------------|---------|-------|
| 14 | Iturralde Barrutia, Jon | 2:34:41 | 3:40 |
| 16 | Etxezarreta Aiertza, Asier | 2:34:56 | 3:40 |
| 152 | Rodriguez Montaña, Mikel | 2:49:48 | 4:01 |
| 269 | Gonzalez Usaralde, Oñatz | 2:56:25 | 4:11 |
| 343 | Real Blanco, Jaime | 2:58:47 | 4:14 |
| 375 | Muñoz Gomez, Iban | 2:59:31 | 4:12 |
| 479 | Imaz Perez de Arriluzea, Jon | 3:02:00 | 4:17 |
| 551 | Etxeberria Albisu, Axier | 3:06:19 | 4:23 |
| 1027 | Bueno Aldaregia, Gorka | 3:23:21 | 4:45 |
| 1185 | Ruiz Otxoa, Arantxa | 3:28:04 | 4:52 |

URNIETA

| Postua | Izena | Denbora | Km-ko |
|--------|-------------------------------|---------|-------|
| 291 | Lizeaga Apaolaza, Unai | 2:57:21 | 4:12 |
| 645 | Olan Garmendia, Mikel | 3:09:23 | 4:26 |
| 652 | Narbarte Garmendia, Iñaki | 3:09:39 | 4:28 |
| 1318 | Amigo del Alamo, Aitor | 3:31:58 | 4:57 |
| 1993 | Iribar Dieguez, Ion Koldobika | 3:54:54 | 5:29 |
| 2262 | Lopez Augusto, Jose Luis | 4:06:03 | 5:42 |
| 2303 | Carmona, Markel Vicente | 4:07:50 | 5:42 |
| 2667 | Esnaola Agesta, Idoia | 4:53:03 | 6:47 |

ERDI MARATOIA

ANDOAIN

| Postua | Izena | Denbora | Km-ko |
|--------|---------------------------|---------|-------|
| 74 | Lanz Bordagarai, Jon | 1:18:22 | 3:42 |
| 117 | Fernandez Carballo, Urtzi | 1:20:21 | 3:48 |
| 240 | Eguren Calonge, Mikel | 1:26:14 | 4:05 |
| 366 | Arregi Ormazabal, Mikel | 1:29:51 | 4:12 |
| 531 | Arregi Formentin, Josu | 1:34:37 | 4:28 |

| | | | |
|------|-----------------------------|---------|------|
| 609 | Soto Loma, Javier | 1:36:36 | 4:31 |
| 738 | Audikana Olazagirre, Emilio | 1:39:47 | 4:38 |
| 893 | Lopez Fariza, Luis | 1:42:56 | 4:46 |
| 1033 | Lacalle Prieto, Amaia | 1:45:50 | 4:56 |
| 1034 | Azpeitia Cao, Jokin | 1:45:50 | 4:56 |
| 1133 | Sancha Perez, Evaristo | 1:48:11 | 4:49 |
| 1762 | Martin Berne, Lurdes | 2:04:44 | 5:39 |
| 1765 | Nuñez Iraola, Mari Jose | 2:04:54 | 5:40 |

URNIETA

| Postua | Izena | Denbora | Km-ko |
|--------|--------------------------|---------|-------|
| 17 | Gomez Gallego, Juan Luis | 1:13:23 | 3:29 |
| 458 | Arzelus Arretxe, Xabin | 1:32:34 | 4:21 |
| 608 | Benitez Mendoza, Vicente | 1:36:36 | 4:31 |
| 685 | Garcia Melero, Adrian | 1:38:23 | 4:34 |
| 1208 | Egaña Arrieta, Oier | 1:50:11 | 5:00 |
| 1382 | Villas Miguel, Begoña | 1:54:26 | 5:19 |
| 1778 | Taracena Alba, Juanma | 2:05:17 | 5:41 |

10 KM

ANDOAIN

| Postua | Izena | Denbora | Km-ko |
|--------|------------------------------|---------|-------|
| 87 | Murua Urdangarin, Aitor | 0:38:15 | 3:49 |
| 106 | Carrasco Errazquin, Angel | 0:39:14 | 3:55 |
| 351 | Irizar Zubillaga, Jose Ramon | 0:50:02 | 4:59 |
| 374 | Poza San Miguel, Itziar | 0:51:11 | 5:05 |

URNIETA

| Postua | Izena | Denbora | Km-ko |
|--------|----------------------------|---------|-------|
| 234 | Santervas Ormaechea, Elena | 0:45:56 | 4:35 |
| 427 | De Miguel, Ainara | 0:52:36 | 5:15 |
| 461 | Azpiaz Marcos, Asier | 0:54:03 | 5:19 |

Iturria: zurichmaratondonostia.com



KIROL ALBISTEAK

Jubenil mailako taldeak lehen postuetan sailkatuta daude

Euskalduna eta Urnieta KE futbol taldeetako emaitzak

ERREGIONAL PREFERENTEA

11. jardunaldia:
Euskalduna 2-2 Trintxerpe
Urnieta 0-1 Mariño
Sailkapena:
1. Deusto Donostia 24 puntu
5. Euskalduna 17 puntu
12. Urnieta 13 puntu
Asteburuan:
Ostadar-Euskalduna. Lar, 2. 17:40.
Hernani-Urnieta. Ig, 3. 12:00.

ERREGIONALA, 1. MAILA

11. jardunaldia:
Euskalduna 1-3 Usurbil
Sailkapena:
1. Segura 22 puntu
7. Euskalduna 4 puntu
Asteburuan:
Intxurre-Euskalduna. Lar, 2. 12:00.

EMAKUMEZKOAK

10. jardunaldia:
Lagun onak 1-0 Urnieta
Sailkapena:
1. Lagun onak 25 puntu
2. Intxaurdi 18 puntu
4. Urnieta 13 puntu
Asteburuan:
Urnieta-Zumaiako. Lar, 2. 17:30.

JUBENIL LEHEN MAILA

11. jardunaldia 3. multzoa:
Pasaia 3-2 Urnieta B
Kostkas 4-2 Euskalduna A
Sailkapena:
1. Pasaia 25 puntu
2. Euskalduna A 24 puntu
8. Urnieta B puntu 1
Asteburuan:
Euskalduna A-Urnieta B. Lar, 2. 17:30.

11. jardunaldia 4. multzoa:
Euskalduna B 4-0 S.Tomas Lizeoa B
Sailkapena:
1. Lengokoak B 25 puntu
2. Antigua Luberrri 19 puntu
7. Euskalduna B 6 puntu

11. jardunaldia 5. multzoa:
Urnieta A 3-1 Axular
Sailkapena:
1. Urnieta A 27 puntu
2. Ostadar 20 puntu
3. Lengokoak 18 puntu
Asteburuan:
Ostadar-Urnieta A. Ig, 3. 12:45.

EMAKUMEZKOAK, JUBENILAK

Tolosa 4-0 Euskalduna
Asteburuan:
Euskalduna-Danena. Lar, 2. 15:30.

Ganbara

AURREKO JARDUNALDIA
Ganbara SenM 59-67 Goierri
Mondragon KadM 16-62 Ganbara
Easo InfM 57-20 Ganbara
SAILKAPENA Kadete maila:
1. Goierri 14 puntu
2. Ganbara 13 puntu
PARTIDAK ALLURRALDEN
Ganbara InfM-BKL
Abenduak 2, larunbata. 09:30.
Ganbara SenM-Alde Zaharra
Abenduak 2, larunbata. 19:15.

Areto futbola

ASTEBURUKO EMAITZAK
Txalaka 0-3 Hogar Extremeño
Centro Extremeño 11-4 Powerade
Irunberri 0-12 Keler
Olajauna 1-1 Ekaitz
Pausoka Elkartea 3-1 Ganbara
Academia London 2-7 Dad Kutxa
Akerbeltz 4-1 Ekhia
Gorostidi 1-4 Lanbroa
Sailkapena:
1. Keler 18 puntu
2. Centro Extremeño 16 puntu

Leizaran

ASTEBURUKO EMAITZAK
Leizaran SenM 30-29 Urola
Avia Eibar 23-34 Leizaran SenN
Leizaran JubM 22-22 Bidasoa Irun
Leizaran JubN 24-13 Ordizia
Ereintza 33-33 Leizaran KadM
Leizaran Kad Horia 16-39 Arrasate
Leizaran KadN Urdina 28-16 B.Bera
Leizaran KadN Horia 8-16 Bidasoa
Eibar A 21-26 Leizaran InfM Urdina

UKE

ASTEBURUKO EMAITZAK
Aloña Mendi 15-28 Urnieta SenM
Urnieta SenN 24-24 Ordizia
Urnieta JubM 24-19 Elgoibar
Urnieta JubN 23-17 Alaia ZKE
Aloña Mendi 26-39 Urnieta KadM
Alaia B ZKE 17-24 Urnieta KadN
Urnieta InfM 29-21 Ordizia
Pulpo 15-12 Urnieta InfN Adarra
Legazpi 21-15 Urnieta InfN Kamox

AT Gure errepideak mantentzeko baliabide gehiago.
Hemen da, kamiolentzat bakarrik sortutako lehenengo peaje sistema adimenduna.
Honek sistema berriarekin, gipuzkoarrak ez diren kamiolentzek ere gure errepideen mantentzean lagunduko du. Hala ere, zuzenean, lehen aldiz, Sistema jasangarri honek trafikoa arinduko du. Sistema honek kalitatea akustikoa % 25 murriztuko du, gelditu gabe pasatzen arikeren ere emanez.

bidegi.eus

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Buztina

INIS TORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDONGO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Olatz Lasa eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 6.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

AZAROAREN 30ETIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

Andoain, Bastero

- **Nuestra vida en la Borgoña**
Larunbata, 2. 19:30, 22:00.
Astelehena, 4. 19:30, 22:00.
- **El secreto de Marrowbone**
Ostirala, 8. 19:30.
Larunbata, 9. 19:30, 22:00.
Igandea, 10. 19:30.
Astelehena, 11. 19:30, 22:00.
- **Tu mejor amigo**
Abenduak 9 eta 10. 17:00.
- **Il Puritani**
20:15 Bastero.
Abenduak 12, asteartea.

Urnietan

- **Handia**
Altzoko handiaren bizitzan oinarrituriko euskal filma.
19:00 Sarobe.
Abenduak 3, igandea.
- **Nacido en Siria**
Dokumentala.
19:00 Sarobe.
Abenduak 17, igandea.

Ikastaroa

Urnietan

- **Mindfulness** ikastaroa, Pepa Bojoren eskutik.
Izen-ematea: Bertan.
Epealdia:
Urtarrilak 10-martxoak 14.
Asteazkenean: 15:00-17:00.
Izena emateko epea:
Abenduak 15.

Ospakizuna

Andoain

- Txerri hiltzearen ospakizuna, Hogar Extremeño elkarteak antolatuta. Hasiera ekitaldia larunbatean izango da, 12:00etan.
Abenduak 2 eta 3.

Deialdia

Eskualdea

- Lan poltsa osatu nahi dute enpresa eta enplegu zeregintarako.
Informazioa: Andoain.eus
Epea: Abenduak 7.

Kanpaina

Andoain

- **Hitzaldia:** "Jostailu ez sexistak aukeratzeko". Ametsondoa elkarteak antolatutako hitzaldia.
17:30 Urigain.
Azaroak 30, osteguna.
- **Emakunderen autobus ibiltaria.** Azaroak 25, emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren baitan.
16:00 Zumea plaza.
Abenduak 4, astelehena.

Ikuskizuna

Andoain, Bastero

- **Pupu eta Lore** haur ikuskizunaren estreinaldia.
18:00 Sarrerak agortuta.
Abenduak 1, ostirala.

Musika

Andoain, Bastero

- **Benito Lertxundi:** 50 urteko ibilbidea ospatzeko saioa.
21:30 Sarrerak agortuta.
Abenduak 1, ostirala.

Farmaziak

Andoain

- **Zatarain:**
Elizondo plaza, 6.
Gauetz: Etxebeste (Hernani).
Abenduak 2, 3.
Abenduak 6, asteazkena:
Diaz Fernandez.
Kale Nagusia, 19.
Abenduak 8, ostirala:
Arzallus.
Aita Larramendi, 26.

Urnietan

- **Aizpuru-Odrizola:**
Laxunbe berri, 11 (Hernani).
Gauetz: Etxebeste (Hernani).
Abenduak 2, 3.
Abenduak 6, asteazkena:
Gomez (Hernani).
Kale Nagusia, 14.
Abenduak 8, ostirala:
Tanco (Urnietan).
Idiazabal, 39.

Plenoa

Andoain

- 19:00 Andoain.
Azaroak 30, osteguna.

Zikloak

Andoain

- **Euskararen nazioarteko eguna** ekitaldi ezberdinekin ospatuko dute Andoainen.
Informazio osoa erdiko gehigarri berezian.
Azaroak 30-abenduak 5.
- **Andoain Bizi** eguberrietako zikloa. Salkinen eguberrietako kanpainaren hasiera, 49 saski eskuratzeko aukera.
Abenduak 1, ostirala.
Euskal jantzien bilketa
Eguberrietako jantzien bilketa. Berrerabilpena sustatzeko egitasmoa Ondarreta ikastetxeko guraso eta zenbait eragileren lankidetzarekin.
11:00-13:00.
Bastero kanpoaldea.
Abenduak 2, larunbata.
Gabon kantuen jaialdia
Trianaren eskutik.
12:00 Bastero.
Abenduak 10, igandea.

Sariketak

Andoain

- **2018ko Udal egitaraua** osatzeko argazki lehiaketaren sari banaketa ekitaldia.
19:00 Urigain.
Abenduak 13, asteazkena.
- **Olazabalen bidea saria**, aurtengoan Osasun pastoralarentzat.
Bastero.
Abenduak 14, osteguna.

Azoka

Durango

- **Disko, liburu** eta kultur ekoizpenen topaleku bilakatuko da.
Landako gunea.
Abenduak 6-10.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Natalia eta Miguelen alaba **Anais**, azaroaren 18an jaio zen. Abenduaren 1ean bere anaia **Mikelek** 3 urte beteko ditu. Etxekoak.

URNIETA

ZORION AGURRAK AIURRIN



OSO ERRAZA DA

Dohainik.

Emaila: diseinua@aiurri.eus

Webgunea: www.aiurri.eus

Whatsappa: 619 163 537.

MERKATU TXIKIA

SALMENTA Ford Focusa salgai, 17 urtekoa. Andoain: **629 068 158**.

LANA Emakumea eskaintzen da adineko persona zaintzeko, esperientziaduna. Andoainen bizi da. **687 675 505** (Lula).

Odol emaleak Urnietan, ostegun honetan

Urnietarrek odola emateko aukera izango dute ostegun honetan, ohi bezala, Denda Berri elkartearen eraikinean

(Anbulategi zaharrean).
18:30ean hasiko dira odola ateratzen, 20:30ak arte.

Azaroak 30, osteguna

Material didaktikoak lantzen aitzindariak



Urnietako Salesiarrak Erasmus+ ekimenak diruz lagunduriko proiektu bat koordinatzen ari da; ikasleak ondo hezi ahal izateko, gaur egun gizartearen behar berri horietara egokitutako material didaktikoak sortzea eta garatzea da helburua. Erabilitako metodologia arazoetan oinarrituta dago, Harvardko Howard Gardner irakaslearen adimen anitzen teoriari, hain zuzen ere. Metodologia hauen bitartez, aurkeztuko zaien problema erreal bati irtenbidea aurkitu beharko diote ikasleek, behar den ikerketa eginda eta lagundu ahal izango dieten adituekin harremanetan egonik, amaieran garatutako lanaren jendaurreko aurkezpena egiten duten arte.

Urnietako Salesiarrak koordinaturiko urte beteko lanaren ondoren, materialak sortu dira eta une honetan Europa eta Euskal Herriko hainbat ikastetxetan probatzen ari dira.

Azaroaren 23an eta 24an Bucaresten izan dira proiektuaren 3. Nazioarteko bileran; bertan bildu ziren Italia, Polonia, Errumania, Portugal eta Euskal Herriko bazkideak eta Europako ikastetxeetan garatzen ari diren lanak aztertu zituzten. Urnietako Salesiar Ikastetxeko bi irakasle eta EHUKo bat izan ziren bertan. Urnietako Salesiarraren zeregina honakoa izan zen: proiektuaren koordinazioa, materialen sorkuntza eta gainerako bazkideen formakuntza, horretarako EHUKo adituen lankidetzaren zutelarik.